

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 1983/2006/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 18koa, Kulturen Arteko Elkarriketaren Europako Urteari buruzkoa (2008).

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: « *Decisión nº 1983/2006/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 18 de diciembre de 2006, relativa al Año Europeo del Diálogo Intercultural (2008)* » (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 412/44 de 30/12/2006*)

2006/1983/EE erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 412/44 2006/12/30ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

**1983/2006/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,
2006ko abenduaren 18koa, Kulturen Arteko Elkarrizketaren Europako Urteari buruzkoa (2008)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen tratatua aztertu dute, bereziki 151. artikulua 5. idatz-zatia,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertu dute ⁽²⁾,

Tratatuaren 251. artikulua araututako prozedurari jarraituta ⁽³⁾,

Kontuan hartu dira hauek:

(1) Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuak xedatzen du Europako Erkidegoaren esku dagoela Europako herrien arteko harremanak geroz eta estuagoak izatea eta estatu kideetako kulturen loraldia bultzatzea. Halaber, adierazten du hori guztia egin daitekeela estatuaren eta eskualdeen aniztasuna errespetatuta, eta kultura-ondare komuna nabarmenduta.

(2) Honako gertakari hauek indartu egin dituzte europarrek Europar Batasuneko gainerako herritarrekin dituzten harremanak eta Europako nahiz mundu osoko kultura, hizkuntza, etnia eta erlijioen arteko harremanak: Europar Batasunaren ondoz ondoko handitze-prozesuak; merkatu bakarrak mugikortasunean eragindako bizkortzea; betiko migrazio-mugimenduak eta mugimendu berriak; eta merkataritzaren, hezkuntzaren, aisiaren eta, oro har, globalizazioaren bidez munduarekin maiztu dituen hartu-eman gero eta sarriagoak.

(3) Hori dela eta, Europako herritarrek eta aldi baterako nahiz behin betiko Europar Batasunean bizi direnek aukera izan behar dute kulturen arteko elkarrizketan parte hartzeko, eta horrenbestez, askotarikoa, pluralista, solidarioa eta dinamikoa den gizarte batean beren burua garatzeko, bai Europan, bai eta mundu osoan ere.

(4) Europako proiektuaren ardatzetako bat denez, garrantzitsua da beharrezko baliabideak ezartzea, kulturen arteko eta herritarren arteko elkarrizketen bidez, aniztasunarekiko errespetua indartu dadin. Horrela jokatuta, gure gizartearen errealitate konplexua landuko da, eta kultura eta sinesmen anitzen arteko bizikidetzak bultzatuko. Gainera, nabarmendu behar da kultura ezberdinek ekarpen handia egiten diotela Europar Batasuneko kultura-ondareari eta haren estatu kideen bizimoduari ere. Bestalde, ezin da ahaztu kultura-jarduerak eta kulturen arteko elkarrizketa lantzea funtsezkoa dela elkarrekin harmoniaz bizitzen ikasteko.

(5) Kulturen arteko elkarrizketak Europar Batasunaren hainbat lehentasun estrategiko betetzen laguntzen du, bereziki hauek:

— Europako kultura-aniztasuna errespetatu eta bultzatzen du, bizikidetzak hobetzen du, eta sustatu egiten du Europako herritarrek herritartasun aktiboa izan dezaten, mundu osora irekita eta Europar Batasuneko balio komunak aintzat hartuta.

— Lisboako estrategia berria barne hartzen duenez, lagundu egiten du Europar Batasunean aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzen. Jakintzaren ekonomiak aldatetara egokitzeko gaitasuna duten pertsonak behar direla diosku Lisboako strategiak, oparotasuna areagotzeko berrikuntza-iturri guztiak baliatzen dituzten pertsonak, hain justu.

— Lisboako estrategia berriko kultura- eta hezkuntza-alderdiak nabarmentzen ditu. Modu horretan, suspertu egiten du Europar Batasuneko ekonomia kulturala eta sortzailea, hazkundera eta enplegua sortzen dituen ekonomia.

¹ C 185 EO, 2006.08.08koa, 42. or.

² C 206 EO, 2006.08.29koa, 44. or.

³ Europako Parlamentuaren irizpena, 2006ko ekainaren 1ekoa (Egunkari Ofizialean argitaratu gabea), Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2006ko azaroaren 14koa (Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Europako Parlamentuaren Jarrera Bateratua, 2006ko abenduaren 12koa (Egunkari Ofizialean argitaratu gabea).

2006/1983/EE erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 412/44 2006/12/30ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

— Babestu egiten du Europar Batasunak solidaritatearekin, justizia sozialarekin, merkatu-ekonomia sozialarekin eta lankidetzarekin duen konpromisoa; bestalde, kohesioa lortzen laguntzen du, haren balio komunak behar bezala zainduz.

— Kulturen arteko elkarrizketari esker, Europar Batasunak indar handiagoz zabal dezake bere ahotsa munduan, eta harreman eraginkorrak izan ditzake inguruko herrialdeekin. Modu horretan, Europar Batasunetik harago hedatuko da egonkortasunaren, demokraziaren eta oparotasunaren eremua, eta, horrenbestez, handitu egingo da Europako herritarren eta Europar Batasunean bizi diren pertsona guztien segurtasuna eta ongizatea.

(6) Kulturen arteko elkarrizketa dimentsio esanguratsua da Europako Erkidegoaren hainbat politika eta tresnetan: Egiturazko Fondoetan, hezkuntzan, etengabeko ikasketan, gazterian, kulturen, hiritartasunean eta kirolean, genero berdintasunean, enpleguan eta gizarte-gaietan, diskriminazioaren eta gizarte-bazterketaren aurkako borrokan, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan, etorkinak integratzeko eta asiloa emateko politikan, giza eskubideetan eta garapen iraunkorrean, ikus-entzunezkoen politikan, eta ikerketan.

(7) Bestalde, kulturen arteko elkarrizketa erronka geroz eta handiagoa da, Europar Batasunaren kanpo-harremanetan, bereziki herrialde hauekiko harremanetan: herrialde atxikigaiak eta atxikitzeaz daudenak, mendebaldeko Balkanetako herrialdeak, Europar Batasunarekin elkartzeko akordioak hautagai diren herrialdeak, Europako auzoarteko politikan kide diren herrialdeak, eta beste herrialde batzuk, bereziki garapen bidean dauden herrialdeak.

(8) Erkidegoaren eskarmentuak eta ekimenek agerian uzten dute funtsezkoa dela estatu kideetako eta, oro har, europar gizarteko herritar guztiak, gizonak eta emakumeak, kulturen arteko elkarrizketan parte har dezaten sustatzea; batik bat, gizarte zibilarekin adostutako elkarlan baten bidez. Lan horrek Europaren nortasun-sentimendua sortzen laguntzen du; izan ere, ezberdintasunak integratzen dira eta Erkidegoko kide izatearen aspektuak eratzten.

(9) Erabaki honetan, “Europako herritar aktibo” kontzeptuak Europar Batasunean aldi baterako zein behin betiko bizi den orori egiten dio erreferentzia, eta ez Europar Batasuneko herritarrei bakarrik, EE Tratatuaren 17. artikuluan jasotzen den moduan.

(10) Europar Batasuneko balio komunak Europar Batasunaren Tratatuak 6. artikuluan jasotzen dira.

(11) Funtsezkoa da elkarren osagarri izatea eta horizontalki antolatzea kulturen arteko elkarrizketarekin lotura duten jarduerak guztiak, bai Erkidegoko jarduerak, bai eta estatukoak, eskualdekoak eta tokikoak ere. Izan ere, Kulturen Arteko Elkarrizketaren Europako Urteak jarduera horiek koherenteak eta agerikoak izan daitezela lagunduko du. Erkidegoan eta estatuetan jarduera horiek antolatzean, kontuan hartuko da Aukera Berdintasunerako Europako Urtean (2007) jasotako esperientzia, baldin eta egokia bada.

(12) Kulturen Arteko Elkarrizketaren Europako Urtearen egitekoa izango da kulturen arteko elkarrizketa Erkidegoaren politika, jarduera eta programetan txertatzea, horizontalki eta sektore arteko elementu moduan. Bestalde, elkarrizketa hori sustatzeko jardunbide egokiak identifikatzen eta partekatzen lagunduko du. Jardunbide egokiak eta proiektu onenen berri emanda, kulturen arteko elkarrizketan interesa dutenak animatu egingo dira ideia horiek gizarte zibilean sustatzera.

(13) Hala komeni bada, nazioarteko beste erakundeekin lan egin daiteke; Europako Kontseiluarekin eta Unesco-rekin, esaterako. Baliagarria izan daiteke erakunde horiek kulturen arteko elkarrizketa sustatzen daukaten esperientzia eta ezagutza.

(14) Halaber, garrantzitsua da behar bezala uztartzea Kulturen Arteko Elkarrizketaren Europako Urte eta kulturen arteko elkarrizketa sustatzeko egindako beste kanpo-ekimenak; horien artean, Europako Merkataritza Askeko Elkartekide diren eta Europako Esparru Ekonomikoaren akordioan parte hartzen duten herrialdeekin egindako ekimenak, mendebaldeko Balkanetako herrialdeekin egindako ekimenak, eta Europako auzoarteko politikan kide diren herrialdeekin egindako ekimenak. Bestalde, garrantzitsua da elkarlanerako beste edozein ekimenekin ere osagarri izatea, bereziki garatze bidean dauden herrialdeekiko elkarlan-ekimenekin, beti ere elkarlan horrek harremana baldin badu Kulturen Arteko Elkarrizketaren Europako Urteak dituen helburuekin.

(15) Kanpo harremanetarako baliabideen barruan gauzatzen diren kultura arteko elkarrizketa-ekintzetan, bi aldeek adierazi behar dute, besteak beste, esperientziak eta balioak trukatzeko interesa. Bestalde, bestearen kultura ezagutu, ulertu eta errespetatu behar dute.

2006/1983/EE erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 412/44 2006/12/30ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(16) Erabaki honek estatu kideei eragingo die. Hala ere, komeni da herrialde atxikigaiak ere inplikatzeko Kulturen Arteko Elkarrizketaren Europako Urtean. Komeni da, hain zuzen ere, herrialde horiek kulturen arteko elkarrizketa bideratzeko ekimenak sustatzea elkarlan- eta elkarrizketa-eremuetan; batez ere herrialde atxikigaien eta Europar Batasuneko gizarte zibilen arteko elkarrizketa⁽¹⁾.

(17) Erabaki honek diru-kopuru bat ezartzen du ekintzaren iraupen osorako. Diru-kopuru horrek lehentasuna izango du Aurrekontu Agintaritzaren urteko aurrekontuetan. Hala jasotzen du Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen Institutio arteko Akordioak (37. paragrafoa), 2006ko maiatzaren 17koak, aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketari buruzkoak⁽²⁾.

(18) Erabaki hau betearazten duten neurriak onartzeko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakia jarraituko da, 1999ko ekainaren 28koa, Batzordearen betearazpen-eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituena⁽³⁾. Halaber, aurreikusten den ekintzaren izaera eta hedadura kontuan hartuta, egokia da aholku-komite bat sortzea.

(19) Aurreikusten den ekintzaren hedadura dela eta, estatu kideek ezin dituzte bete-betean lortu Erabaki honek finkatutako helburuak. Helburu horiek lortzea errazagoa da Erkidegoan. Izan ere, beharrezkoa da Erkidegoan alderdi anitzeko lankidetzajarduerak abiatzea eta nazioz gaindiko hartu-emanak sortzea. Bestalde, Erkidegoak neurriak hartzeko gaitasuna du, hala jasotzen baitu Tratatuaren 5. artikuluko subsidiariotasun-printzipioak. Artikulu horretan aipatutako proportzionaltasun-printzipioaren arabera, Erabaki honek ez du helburu horiek lortzeko behar dena baino gehiago egiten.

HAU ERABAKI DUTE:

1. artikulua

Xedea

2008. urtea “Kulturen Arteko Elkarrizketaren Europako Urtea” izango da, eta haren xedea, berriz, kulturen arteko elkarrizketa taxutzea eta hari oihartzun handia ematea, gerora ere etengabeko elkarrizketa-prozesua izan dadin.

2. artikulua

Helburuak

1. Hauek dira Kulturen Arteko Elkarrizketaren Europako Urtearen helburu orokorrak:

— Kulturen arteko elkarrizketa prozesu moduan sustatzea, Europar Batasunean bizi diren pertsona guztiak landu dezaten beren ingurune kulturalan bizitzeko gaitasuna. Izan ere, ingurune kulturala geroz eta zabalagoa eta konplexuagoa da; hainbat identitate eta sinesmen bizi dira aldi berean, eta ezberdintasunak estatu kideen artean ez ezik, estatu kide bakoitzaren barnean ere nabarmentzen dira.

— Argi uztea kulturen arteko elkarrizketak lagundu egiten duela askotariko gizarte dinamikoa sortzen eta gizarte horri onura ateratzen, bai Europan, bai mundu osoan.

— Europar Batasuneko biztanle guztiak sentsibilizatzea; bereziki, gazteak, aintzat har dezaten beharrezkoa dela Europako herritartasun parte hartzaile bat sortzea, mundura irekia egongo dena, aniztasun kulturala errespetatuko duena, eta Europar

¹ Ikusi Batzordearen 2005eko ekainaren 29ko Komunikatua, Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari, eta Eskualdeetako Komiteari zuzendua, herrialde atxikigaien eta EBko gizarte zibilen arteko elkarrizketari buruzkoa.

² C 139 EO, 2006.06.14koa, 1. or.

³ L 183 EO, 1999.07.17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak (L 200 EO, 2006.07.22koa, 11. or.) aldatu zuen Erabakia.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Batasunaren balio komunetan oinarrituko dena. Balio horiek Europar Batasunaren Tratatu 6. artikuluan eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean jasotzen dira.

— Nabarmentzea kultura ezberdinek eta kultura-aniztasunaren adierazpenek onura ekartzen diotela ondareari, bai eta Europar Batasuneko estatu kideen bizimoduerei ere.

2. Hauek dira Kulturen Arteko Elkarrizketaren Europako Urtearen helburu zehatzak:

— Europar Batasuneko biztanle guztien artean, eta bereziki gazteengan sentsibilizazioa handitzea, ohar daitezkeen garrantzitsua dela kulturen arteko elkarrizketa beren eguneroko bizitzan txertatzea.

— Europar Batasunean kulturen arteko elkarrizketa sustatzen duten jardunbide egokiak identifikatzea, eta horiek Europara zabaltzea eta jendearengana heltzea, batez ere haur eta gazteengana.

— Hezkuntzak gai horretan duen egitekoa indartzea, lan handia egin baitezake hainbat arlotan: aniztasunean bizitzen irakasten, munduko kulturak ulertzen, jardunbide sozial egokiak eta gaitasunak lantzen, eta ohartarazten komunikabideek garrantzia dutela berdintasun printzipioa eta elkar-ulertzea sustatzerako orduan.

— Kulturen arteko elkarrizketa bultzatzen duten Erkidegoaren programa eta ekintzak sustatzea, eta programa horiek argitara ematea, jarrai dezaten ziurtatzea, eta guztien arteko koherentzia hobetzea.

— Bide berriak bilatzea sektore anitzetako jendeak lankidetzan jardun dezan kulturen arteko elkarrizketaren alorrean.

3. artikulua

Neurriak

Eranskinean zehazten dira zer neurri hartuko diren 2. artikuluan adierazitako helburuak betetzeko.

Hartutako neurriekin ekintza hauek egin edo lagunduko dira:

a) Kulturen arteko elkarrizketa sustatzeko jarduerak eta ekimenak Europa osorako, eta, horien bidez, Kulturen Arteko Elkarrizketaren Europako Urteari buruzko esperientziak eta ekintzak ezagutaraztea. Ekimen horietan ahalik eta jende gehienak hartuko du parte, zuzenean, edota, zeharka, eta ahalik eta jende gehienarengana iritsiko dira.

b) herrialde eta eskualdeetan Kulturen Arteko Elkarrizketaren Europako Urtearen helburuak sustatzeko jarduerak eta ekimenak, Europako dimentsioa izango dutenak. Ekimen horietan ahalik eta jende gehienak parte hartuko du zuzenean, edota, zeharka, ahalik eta jende gehienarengana iristeko. Halaber, berriazko ekintzak egingo dira gizarte-heziketa zabaltzeko eta giza taldeak nahiz haien arteko diferentziak ezagutzeko.

c) Erkidegoan edo estatu kideetan antolatzen diren informazio- eta sustapen-kanpainak, komunikabideekin eta gizarte zibilarekin elkarlanean antolatuak. Kanpaina horien helburua Kulturen Arteko Elkarrizketaren Europako Urtearen mezu nagusiak zabaltzea eta jardunbide onak hautematea da, batez ere haur eta gazteen artean.

d) Erkidegoan edo estatu kideetan egindako ikerketa eta galdeketa, bai eta gizarte zibileko eragileei eta nazioz gaitzak sareei egindako kontsultak ere. Horien helburua Kulturen Arteko Elkarrizketaren Europako Urtean prestatzeko lanak eta haren eraginkortasuna eta oihartzuna ebaluatu eta dokumentatzea izango da, eta horrenbestez, oinarriak finkatzea ekimenak epe luzean iraun dezan.

4. artikulua

Estatu kideen lankidetzak

Estatu kide bakoitzak lankidetzarako nazio-erakunde bat edo haren baliokide den beste administrazio-erakunde bat izendatuko du, estatu kideak Kulturen Arteko Elkarrizketaren Europako Urtean izango duen parte-hartzea antola dezan. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote zein erakunde aukeratu duten. Horretarako, hilabeteko epea izango dute, Erabaki hau onartzen denetik hasita.

Estatu kide bakoitzak zainduko du erakundeak behar bezala bideratzen duela kulturen arteko elkarrizketaren alderdi guztiek estatu-, eskualde- eta toki-jardueretan izan behar duten parte hartzea.

2006/1983/EE erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 412/44 2006/12/30ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Aipatutako erakundeak koordinatuko ditu, estatuan, Kulturen Arteko Elkarrizketaren Europako Urteko jarduerak.

5. artikulua

Gauzatzea

1. Erabaki hau gauzatzeko neurriak 6. artikuluko 2. paragrafoak araututako prozeduraren arabera onartuko dira.
2. Ahalegin berezia egingo da Europako erakundeekin lankidetzan jarduteko, bereziki, Europako Parlamentuarekin.

6. artikulua

Komitea

1. Batzordeak Komite baten laguntza izango du.
2. Idatz-zati honen erreferentziak egiten badira, 1999/468/EE Erabakiaren 3. eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta 8. artikulua xedatutakoa aintzat hartuta.
3. Komiteak bere barne-araudia onartuko du.
4. Laugarren artikuluan aipatutako lankidetzarako nazio-erakundeak izendatuko ditu, lehentasunez, Komitearen ordezkari nazionalak.

7. artikulua

Finantza-xedapenak

1. Diruz lagun daitezke eranskinaren A zatian adierazitako Erkidego osorako neurriak, Europar Batasunaren aurrekontu orokorretatik ordainduz, gehienez, haien balio osoaren % 80.
2. Eranskinaren B zatian aipatzen diren Erkidego osorako neurriak diruz lagun daitezke, haien balio osoaren % 50 bitartean. Laguntza horiek Europar Batasunaren aurrekontu orokorretatik ordainduko dira, 8. artikulua jasotzen duen prozedura betez.
3. Eranskinaren C zatian aipatzen diren Erkidego osorako neurriak prozedura publiko bat jarraituta kontratatuko dira, edo bestela, diru-laguntzak emango zaizkie, Europako Batasunaren aurrekontu orokorraren kontura.

8. artikulua

Eskaerak aurkeztu eta aukeratzeko prozedura

1. Seigarren artikuluko 2. paragrafoan jasotzen den prozedura jarraituta hartuko ditu Batzordeak diru-laguntzak banatzeko erabakiak. Horretarako, oreka eta ekitatea bilatzen saiatuko da estatu kideen artean eta ekintza-eremuen artean; beti ere, proposatzen diren proiektuen kalitatea kontuan hartuta.
2. Laugarren artikuluan aipatutako erakundeak eskatuko dio diru-laguntza Batzordeari, 7. artikuluko 2. paragrafoan jasotakoaren arabera.

9. artikulua

Nazioarteko erakundeak

Kulturen Arteko Elkarrizketaren Europako Urtean, Batzordeak nazioarteko erakundeekin batera lanean aritzeko aukera izango du, bereziki Europako Kontseiluarekin eta Unesco-rekin. Lan horretan, ahalegin berezia egingo du Europar Batasunaren parte-hartzea agerikoa izan dadin.

10. artikulua

Batzordearen zeregina

1. Batzordearen egitekoa izango da Erabaki honen bidez hartutako neurrien eta Europako Erkidegoaren gainerako jarduera eta ekimenen arteko koherentzia zaintzea.

2006/1983/EE erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 412/44 2006/12/30ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Batzordea gogoz saiatuko da herrialde atxikigaiak ere ospa dezaten Kulturen Arteko Elkarrizketaren Europako Urtea. Horretarako, Europako Erkidegoak kulturen arteko elkarrizketarako presta ditzakeen programatan parte har dezaten sustatuko du, eta berariazko ekimenak landuko ditu eremu egokietan. Bereziki, EBko gizarte zibilen eta herrialde atxikigaietako gizarte zibilen arteko elkarrizketa sustatzeko ekimenak bultzatuko ditu.

3. Batzordeak bermatu egingo du osagarriak izango direla, batetik, Kulturen Arteko Elkarrizketaren Europako Urtearen helburuak betetzeko hartzen diren neurriak, eta, bestetik, lankidetzeta eta elkarrizketa sustatzeko beste herrialde batzuekin egin daitezkeen ekimenak; besteak beste, Europako Merkataritza Askeko elkartekide diren eta Europako Esparru Ekonomikoaren akordioan parte hartzen duten herrialdeekin egindakoak, Mendebaldeko Balkanetako herrialdeekin egindakoak, eta Europako auzoarteko politikan kide diren herrialdeekin egindakoak.

4. Halaber, ziurtatu egingo du Europako Urtearen helburuak bateragarriak izango direla elkarlanerako beste edozein ekimenekin; bereziki garatze bidean dauden herrialdeekiko elkarlan-ekimenekin, beti ere, elkarlan horrek harremana baldin badu Kulturen Arteko Elkarrizketaren Europako Urtearen helburuekin.

11. artikulua **Aurrekontua**

1. 10.000.000 euro esleituko dira 2007ko urtarrilaren 1etik 2008ko abendura bitartean Erabaki hau bete dadin. Prestatze-jardueretarako, ez da aurrekontu osoaren %30etik goragoko zenbatekorik esleituko.

2. Aurrekontu-agintaritzak finantza-esparruaren baitan baimenduko ditu urteko kredituak.

12. artikulua **Erkidegoaren finantza-interesak babestea**

1. Erabaki honen baitan finantzatutako ekimenak gauzatzean, Batzordeak bere finantza-interesak babestuko ditu, eta neurriak hartuko ditu iruzurraren, ustelkeriaren eta legez kanpoko beste ekintza batzuen aurka. Horretarako, kontrol eraginkorrak egingo ditu, behar ez bezala ordaindutako dirua berreskuratuko du, eta zigor eraginkorrak, neurrikoak eta disuasiozkoak jarriko ditu. Kontrol eta zigor horiek araudi hauen arabera jarriko dira: Kontseiluaren 2988/95 Erregelamendua (EE, Euratom), 1995eko abenduaren 18koa, Europako Erkidegoen finantza-interesak babesteari buruzkoa ⁽¹⁾, Kontseiluaren 2185/96 Erregelamendua (EE, Euratom), 1996ko azaroaren 11koa, Europako Erkidegoen finantza interesak iruzurretatik eta irregulartasunetatik babestu ahal izateko Batzordeak egiten dituen kontrolei eta *in situ* egiaztatzei buruzkoa ⁽²⁾; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1073/1999 Erregelamendua (EE), 1999ko maiatzaren 25koa, Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF) egindako ikerketei buruzkoa ⁽³⁾.

2. Erabaki honen bitartez finantzatutako Erkidegoaren jardueretan, 2988/95 (EE, Euratom) Erregelamenduaren 1. artikuluko 2. paragrafoak araututako definizioa baliatuko da irregulartasuna zer den zehazteko; hala, irregulartasuna izango da, ekintzaren bat edo ez-egiteren bat burutzeagatik, eragile ekonomikoren batek Erkidegoko zuzenbidearen arauak haustea edota kontratutako betebeharren bat ez betetzea, baldin eta, horien ondorioz, bidegabeko gastu bat sorrarazten bazaie Europako Batasunaren aurrekontu orokorrari edo Erkidegoek kudeatutako aurrekontuei.

3. Irregulartasunak aurkitzen baditu, Batzordeak murriztu, bertan behera utzi edo berreskuratu egingo ditu ekintza horri emandako diru-laguntzak. Irregulartasun horien artean egon daiteke Erabaki hau edo finantza-laguntzak emateko erabaki indibidualak edo kontratua ez betetzea. Beste irregulartasun bat izan daiteke egiaztatzea ekintza jakinen batean aldaketa handiak egin direla Batzordearen onespenerik jaso gabe (aldaketa horiek bateraezinak izan behar dute ekintzaren izaerarekin edo ekintza egiteko ezarri diren baldintzekin).

¹ C 312 EO, 1995.12.23koa, 1. or.

² L 292 EO, 1996.11.15koa, 2. or.

³ L 136 EO, 1999.05.31koa 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

4. Epeak betetzen ez badira, edo burututako ekintzarekin emandako diru-laguntzaren zati bat bakarrik justifika badaiteke, epe jakin batean azalpenak aurkezteko eskatuko dio Batzordeak onuradunari. Onuradunaren justifikazioa ez bada baliozkoa, Batzordeak kendu egin diezaioke diru-laguntza eta ordura arte jasotako dirua bueltatzeko eskatu.

5. Batzordeari bueltatu egin behar zizkio bidegabe ordaindutako diru-kopuruak. Itzulketa horiek ez badira dagokionean egiten, berandutza-interesak kobratuko dira, Kontseiluaren 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduak, 2002ko ekainaren 25ekoak, Europako Erkidegoen aurrekontu orokorreari aplikatu beharreko finantza-erregelamendua onartzen duenak ⁽¹⁾, araututakoari jarraiki.

13. artikulua

Ikuskapena

1. Erabaki honen baitan finantzatutako lanen aurrerapenei buruzko txosten teknikoak eta finantza-txostenak aurkeztuko ditu onuradunak. Halaber, ekintza burutu ondoren, azken txosten bat aurkeztuko du, hiru hilabeteko epean. Batzordeak zehaztuko du nolakoak izango diren txosten horiek, eta zer azaldu behar den bertan.

2. Azken ordainketa burutzen denetik, onuradunak bost urtean jarri beharko ditu Batzordearen eskura ekintzarekin zerikusia duten gastuen froga-agiriak.

3. Batzordeak beharrezko diren neurri guztiekin egiaztatuko du finantza-ekintza guztiak behar bezala betetzen direla, eta ekintzok zuzen betetzen dituztela Erabaki honetako eta 1605/2002 Erregelamenduko (EE, Euratom) xedapenak.

14. artikulua

Jarraipena eta ebaluazioa

Batzordeak txosten bat aurkeztuko dio Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari, eta Eskualdeetako Komiteari, 3. artikulua adierazitako neurriak nola bete diren, zer emaitza jaso dituzten eta neurrien ebaluazio orokor bat egiteko. Txostena, beranduenez, 2009ko abenduaren 31n aurkeztuko da, eta Europar Batasunak aintzat hartuko du gerora alor horretan egingo dituen politika, neurri eta ekintzak erabakitzeko.

15. artikulua

Indarrean sartzea

Erabaki hau Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratu eta hogeit hamar egunera sartuko da indarrean.

16. artikulua

Hartzaileak

Estatu kideak dira Erabaki honen hartzaileak.

Bruselan emana, 2006ko abenduaren 18an.

Europako Parlamentuaren izenean *Presidente* J. BORRELL FONTELLES *Kontseiluaren izenean*
Presidente
J.-E. ENESTAM

¹ L248 EO, 2002.09.16koa, 1. or.